

EIBARKO KULTUR ESTRATEGIEN GARAPENERAKO HAUSNARKETA

AURKEZPENA : EGINEZ PENTSATU, PENTSATUZ EGIN (TORIBIO ETXEBARRIA).....	3
PRESTAKUNTZA-PROZESUA: ALDERDI METODOLOGIKOAK.....	5
1.- EIBARKO HIRIA – DATUAK.	6
2.- KULTUR EKIMENA EIBARREN.....	7
3.- KULTUR EKINTZA HIRIAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN ESPARRUAN9	
4.- KULTUR EKINTZAK.....	10
4.1. Kultur horniduretako inbertsioa.....	10
4.2. Eibarko kultur hornikuntzen erabilerak eta zerbitzuak.....	12
4.3. Parte-hartzea: kultur eragileak.....	14
4.4. Erakunde publikoen ekintzak: Udala, Diputazioa, eskola.....	16
4.5. Hartzailea.....	17
4.6. Prestakuntza.....	18
4.7. Zabalkundea.....	20
4.7.1. Antzerkia.....	20
4.7.2. Irudia: zinema, argazkigintza... ..	21
4.7.3. Musika.....	22
4.7.4. Plastika.....	23
4.7.8. Literatura.....	23
4.7.9. Solasaldiak, hitzaldiak, mahai-inguruak... ..	24
4.8. Sorkuntza-lana, ikerketa, produkzioa.....	24
4.9. Ezin ukituzko ondarea: jaiak eta tradizioak	25
5.- EIBARKO KULTUR EKINTZAREN DAFOA.....	26
5.1. Ahultasunak	26
5.2. Mehatxuak.....	26

5.3. Indarguneak.....	26
5.4. Aukerak	27
6.- MISIOA.....	27
9.- ILDO ESTRATEGIKOAK.....	28
9.1. 1 ildo estrategikoa:.....	28
9.2. 2 ildo estrategikoa.....	29
9.3. 3 ildo estrategikoa.....	29
9.4. 4 ildo estrategikoa.....	29
AURKEZPENA : EGINEZ PENTSATU, PENTSATUZ EGIN (TORIBIO ETXEBARRIA).....	3
PRESTAKUNTZA-PROZESUA: ALDERDI METODOLOGIKOAK.....	5
1.- EIBARKO HIRIA – DATUAK.	6
2.- KULTUR EKIMENA EIBARREN.....	7
3.- KULTUR EKINTZA HIRIAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN ESPARRUAN	9
4.- KULTUR EKINTZAK.....	10
4.1. Kultur horniduretako inbertsioa.....	10
4.2. Eibarko kultur hornikuntzen erabilerak eta zerbitzuak.....	12
4.3. Parte-hartzea: kultur eragileak.....	14
4.4. Erakunde publikoen ekintzak: Udala, Diputazioa, eskola.....	16
4.5. Hartzailea.....	17
4.6. Prestakuntza.....	18
4.7. Zabalkundea.....	20
4.7.1. Antzerkia.....	20
4.7.2. Irudia: zinema, argazkigintza... ..	21
4.7.3. Musika.....	22
4.7.4. Plastika.....	23
4.7.8. Literatura.....	23
4.7.9. Solasaldiak, hitzaldiak, mahai-inguruak... ..	24
4.8. Sorkuntza-lana, ikerketa, produkzioa.....	24

4.9. Ezin ukituzko ondarea: jaiak eta tradizioak	25
5.- EIBARKO KULTUR EKINTZAREN DAFOA.....	26
5.1. Ahultasunak	26
5.2. Mehatxuak.....	26
5.3. Indarguneak.....	26
5.4. Aukerak	27
6.- MISIOA.....	27
9.- ILDO ESTRATEGIKOAK.....	28
9.1. 1 ildo estrategikoa:.....	28
9.2. 2 ildo estrategikoa.....	29
9.3. 3 ildo estrategikoa.....	29
9.4. 4 ildo estrategikoa.....	29

AURKEZPENA : eginez pentsatu, pentsatuz egin (Toribio Etxebarria)

Eibarko Udalak, Euskara, Kultura eta Hezkuntza Sailaren bitartez, honako dokumentu hau osatu du, eta datozen urteotan udal-kudeaketaren alorrean jarraitu beharreko estrategiak markatuko dituen hausnarketa izan nahi du. Dokumentu honen osaketan hainbat eratako eragileek parte hartu dute, eta haien proposamenak jaso dira.

“Eibarko kultur estrategien garapenerako hausnarketa” hau baliagarria gertatuko zaigu eskaintza arrazionalizatzeko eta, kultur horniduretako inbertsioak osatzen ari diren honetan, planifikazio eta kohesio handiagorik lan egiteko. Oinarriak argi finkatuak eta adostuak baldin baditugu, eta elkarriketen eta eztabaida kolektiboen emaitza baldin badira, tresna hobeak sortu ahal izango ditugu, eta egunean eguneko kudeaketa eta haren ebaluazioa hobetuko ditugu.

Dokumentu honekin udalaren kultur kudeaketa ordenatu nahi dugu, bai kolektiboen proposamenetatik sortutako kultur kudeaketa, bai udalak berak sortua, eta orobat nahi dugu hura hiritarren zerbitzura jartzen lagundu. Hausnarketa hau bi zatitan bereizi da: aurrenekoan, udaleko kultur bizitzaren zenbait alderdi analizatzen dira, eta bigarrenean jardueraren ildo estrategikoak proposatzen dira.

Hausnarketan parte hartu duten eragileei eta kolektiboek eskerrak ematea besterik ez zait geratzen, eta gure plangintza honetan izan daitezkeen alderdi egokiak beren helburua irits dezaten desiratzea.

Iñaki Arriola
Eibarko alkatea.

PRESTAKUNTZA-PROZESUA: ALDERDI METODOLOGIKOAK

“Eibarko kultur estrategien garapenerako hausnarketa” honen helburua udaleko kultur ekimenen gaurko egoeraz hausnarketa egitea da, eta haien funtzionamendua hobetzen lagunduko duten proposamenak planteatzea.

Euskararen Plan Estrategikoa osatu zenean egin zen bezala, lan hau Euskara, Kultura eta Hezkuntza Zerbitzuen Sailak koordinatu eta prestatu du, udaleko kultur eragile desberdinen ekarpena aintzat hartuz, bai pertsona banakoena, bai kolektiboena.

Era berean, Teknikerreko teknikariek aholkuak eman dizkiote sailari hausnarketa-prozesuan zehar, beren tresnak ikuspuntu bikoitz batetik eskainiz: zerbitzuen hurbileko erabiltzaile diren neurrian, eta antolamenduen analisiaren aditu gisa. Etengabe eman da egiten ari ziren urratsen berri alderdi politiko guztietako ordezkariak osatzen duten Euskara-Kultura Batzordearen bileretan.

Helburua dokumentu labur-zehatz bat osatzea izan da, eguneroko lanean lagunduko duena, eta epe labur, ertain eta luzerako egin beharreko ekimenak markatuko dituen. Informazioa eta iritziak eskuratzen lagundu duten zenbait tresnaren bidez egin da hausnarketa, Eibarko kultur errealitatean dauden sentiberatasun desberdinak islatuz.

Zehatzago, ondorengo hauek izan dira dokumentua osatzen izan diren faseak:

- 1.- Egoeraren, Udalaren eta kultur kolektibo desberdinen artean ezarritako harremanen arteko analisia, eta baita eskura ditugun adierazleena ere, kulturaren sorkuntzari eta kontsumoari dagokionez, horniduren okupazio mailari dagokionez...
- 2.- AMIA bat osatzea (ahultasun, mehatxu, indargune eta aukeren zerrenda) udalaren errealitate kulturalaz.
- 3.- Dokumentua Euskara-Kultura Batzordean aurkeztea.
- 4.- Saileko teknikariek eta udaleko kultur kolektibo desberdinen ordezkariak parte hartu duten lan-saioak egitea. Lan-saio horietan AMIA aurkeztu eta jarduera-ildoak ezarri dira.
- 5.- Kolektibo ordezkariekin banakako bilerak egitea, ekarpenak egiteko.
- 6.- Jarduera-ildo desberdinen garapena.

Jarduera-ildoak osatzeko bileretan, udaleko ondoko kolektibo hauek parte hartu dute:

- Festak: Amañako Jaien Batzordea, San Kristobalgo Jaien Batzordea, Urkiko Jaien Batzordea, Behetarrak, Casa Galicia As Burgas, Casa Cantabria...
- Antzertia: CDE / Kezka, Uni Kultur Elkartea / Narruzko Zezen.
- Musika: EMEDE, Cielito Musika Banda, Usartza Txistularien Banda, Ustekabe, Sostoa, Goruntz...
- Ikus-entzunezkoak – irudia: CDE / Argazki Saila, Amaña Kultur Aretoa, Uni Kultur Elkartea / Ego Ibar zine kluba.

Hausnarketa estrategiko hau osatzeko lanak abian jarri diren une berean EMEDE taldea - Eibarko Musika eta Dantza Elkartek – osatu dela azpimarratu behar da, kolektiboen arteko elkarlana indartzeko eta kultur egitasmo komunak sustatzeko xedea duena.

Dokumentuaren idazketa eta eguneroko lanean arreta jartzea, helburuak segurtatzea eta denak asetzea, hori guztia aldi berean egitea, zenbait hilabeteko lana izan da, eta, horren ondorioz, elkarrekin egin dituzten proposamen batzuk, berehala abian jar zitezkeenak, abian dira dagoeneko.

Beste proposamen batzuk gauzatu ahal izateko, elkarlana gehiago indartu beharko da, eta hizkuntza bateratuak osatzeko, helburuak partekatze eta estrategiak adosteko eragozpenak beharko dira gainditu. Udalak hasiera-hasieratik argi utzi nahi izan zuen bere kezka nagusia berrikuntzazko eta kalitatezko estrategiak ezartzea zela.

Ez da elitismorik bilatzen, ezta jauzi kualitatiborik egitea ere, ezta egitaraua jaialdi gehiagorekin osatzea ere, aitzitik, egitarau egonkor bat nahi da finkatu eta sendotu, aurreko denboraldietako eskaintza hobetu ahal izateko, eta, batez ere, hartzaileen erantzun hobe lortzeko. Izan ere, askotan, zaila izaten da, bai erakundeetatik, bai kolektiboetatik, hartzaile horrengana iristea.

Funts publikoekin egin nahi izan den ahalegin garrantzitsuak, hiritarrek kudeaketan gehiago parte har dezaten, ez du ekarri parte-hartzearen hobekuntza proportzionalik. Argi dago konpromisoa behar dela denen aldetik, emaitza onuragarriak lortu nahi badira.

Plan hau gauzatzeko, bizirik eutsi beharko zaio parte-hartze ordenatuko dinamika honi, jarraipena eta koordinazioa segurtatzeko, eta, horrez gainera, ekimen eta egitasmo komunak sorterra sustatzeko.

1.- EIBARKO HIRIA – DATUAK.

Eibarko udalerriak 27.515 biztanle ditu, eta horietatik 975 (%3,54) atzerriatik etorriak dira, 2006ko urriko erroldako datuen arabera.

Biztanleriari dagokionez, Eibarrek 1978an jo zuen gailurra, 39.530 biztanlera heldu zenean. Ordudanik, biztanle kopuruak behera egin du: 32.330 biztanle ziren 1992an, 28.677 biztanle 2000n eta 27.515 dira gaur egun.

Alabaina, ezinezkoa gertatzen da ia biztanleen eta egoiliarren arteko diferentzia kalkulatzeko, izena ematea eta tasak ordaintzea eskatzen duten kultur zerbitzu guztietan, beste udalerrietan erroldaturiko erabiltzaileen ehuneko bat sumatu baita, bereziki arrazoi fiskalak direla medio (lehen etxebizitzat hartzen den EGZ desgrabatzea).

Eibarrek hiriburu-eginkizunak betetzen ditu Debabarrenako eskualdean. – Erreferentziagunea da, eta eragin handia du inguruko herrietako usadioetan. Bertan 44.033 biztanle bizi dira.

Biztanleen ikasketa mailari dagokionez, hamar urtetik gorakoetan, %15,92k lanbide-hezkuntzako ikasketak egin ditu, %17,70ek bigarren hezkuntzako ikasketak, %7k

ikasketa ertain-goi mailakoak, eta %9,99k goi mailakoak, Eustaten 2001eko datuen arabera.

Eibarko 16 urtetik gorako biztanleriaren okupazioari dagokionez, datuak ondorengo hauek dira: %0,44 nekazaritzan ari da, %44,66 industriaren sektorean, %5,82 eraikuntzan eta %49,0 zerbitzuen sektorean.

Hizkuntzaren alorrean, bost urtetik gorako biztanleetatik %51,78k badakite euskaraz; %11,28 ia euskalduna da, eta %36,94k ez daki euskaraz, eta ez du euskararik erabiltzen.

2.- KULTUR EKIMENA EIBARREN

Eibarko kulturaren orainaren eta etorkizunaren gaineko hausnarketak, Udalak datozen urteetan bideratu beharko dituen ekintzak plan jakin baten arabera antolatzekeo premiari erantzuten dio, behin kultur horniduretako inbertsioa egiten denean, eta hiriaren eta sektorearen beraren mugak gainditzen dituzten aldaketa-testuinguru batean.

Eibarko kulturaren esparruan gertatzen ari diren aldaketa hauek alderdi globalaren eta alderdi lokalaren artean gertatzen diren gizarte-fenomenoen ondoriozkoak dira. Globalizazioaren eraginak, teknologia berrien garapenak eta sozializazioak, hiru lurraldetako hiriburuek sortzen duten eskaintzak, immigrazioak ekarritako hiritar berriak eta beste batzuek, eragin handia dute kultura kontsumitzeko usadioetan eta moduetan, eta artistek eta kultur kolektiboek sortzen duten ekoizpenean.

Erronka berri horiei aurre egiteko, eta hiria sortzen jarraitzekeo planteatzen da hausnarketa hau, zeinaren asmoa Eibarren eta bertako hiritarren berezitasuna eta idiosinkrasia propioa balioaraztekeo helburuak dituzten politikak aplikatzea baita.

Udalaren **ondasunen** artean, bada egitarau ugari eta egonkor bat, kultura sustatzeko udal-gastu finkatu bat, giza kapital handi bat eta kultur azpiegiturako sare garrantzitsu bat. Horiek guztiek gailurra joko dute Coliseo Udal Antzokiaren zabalkuntzarekin, Armagintza Museoarekin eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskola Portaleara aldatzearekin.

Era berean, Eibarko Udalaren ondasun artean dago Gipuzkoako udal askoren erreferente izaten jarraitzea. Foru Diputazioko Kultura sailak egin berri duen azterlan baten arabera, beste udal askoren erreferentzia da Eibarkoa, Tolosa eta Donostiakoekin batera.

Hartzekoen artean, letra larriaz ageri da koordinazioarena. Hiriaren neurriak eta kultur eragileen jarrerak asko lagundu du elkarlaneaneko ekimenak berez sor zitezen. Udalaren erabakia, hau da, berak bideratzen dituen kultur politiken inguruko hausnarketa serio bat aurrera eraman nahia, primerako abagunea da koordinazioa optimizatzeko eta hobekuntza etengabearen printzipioak aplikatzeko.

Dokumentu honen xede nagusia hobekuntzarako estrategiak, politikak eta ekintzak modu esplizituan eta bateratuan definitzea da.

Azken urteotan, bi jarduera-ildotan oinarritu da Eibarko Udalaren kultur ekintza:

1. Kultur egitarau egonkor bati eustea, bai Udalak berak bultzaturik, bai zenbait kolektibok bultzaturik, zeinetan ondare-ekimenak egin baitira, kultur zabalkundezkoak, parte-hartzekoak, ikerketazkoak, sorkuntzazkoak... Hori guztia ekimen konkretuetan gauzatu da, zeinak baitira, besteak beste, EBPn, liburuen argitalpena Ego Ibarren, Antzerki Jardunaldiak, Eskolako Antzerkiko Mostra, Euskal Jaia, Martitzenetan Berbetan hitzaldiak, Musikaldia, erakusketak eta beste asko.
2. Inbertsio-ahalegin handi bat egin da kultur hornikuntzetan, hamabi milioi eurokoa ia. Horren ondorioz antolatu dira Portalea, Liburutegi zerbitzuekin, Areto Nagusiarekin, Erakusketa Aretoarekin, lantegiekin, Arteko udal eskolekin; laster Museoa eta Musika Eskola ere hartuko ditu; Legarreko Musika Sorkuntzako Zentroa; Markeskuaren birgaitze-lana; Coliseo Antzokiaren birgaitze-lana (orain egiten ari dena); Hezkuntza Esparruko Antzokiaren zaharberritzea (parte handi batean Udalaren diru-laguntzarekin egin) eta Ondamendi, artista gazteentzako etorkizuneko sorkuntza-zentro gisa.

Kulturaren kudeaketa, azken urteotan, hirien motor garrantzitsua bihurtu da, eta haien konplexutasuna areagotzea ekarri du. Kalitatea eta eraginkortasuna dira kultura lehiakorra bihurtzeko gogoan hartu beharreko erronkak, ekintzak komunikatzeko eta publikoari haiek modu eraginkorrean helarazteko gaitasunarekin batera.

Esparru honetan guru handiek ere aurkitu ez duten irtenbide magikoa bilatzeko asmorik izan gabe, dokumentu honek gobernu taldearen konpromiso jakin bati erantzuten dio, hau da, plan estrategiko bat prestatu eta kultur politika bat planifikatu, besteak beste, ondorengo hauen moduko arazo globalei irtenbide lokalak eskainiko dizkiena:

- erabiltzaileen ihesak, ondorengo hauen ondorioz gertatzen direnak:
 - a) Herrialde aberats guztietan aisialdi modu banakakoa zabaldu da, ez-sozializatzailea eta pribatua. Bizitzaren erritmo lasterrak, konpromiso faltak eta teknologia berriek etxe barruan eusten diote jendeari, denbora librerako aukerak edozein direlarik ere.
 - b) Saltoki handiak, kontsumoan oinarrituak, aisialdigune berriak bihurtu dira, eta hiria ulertzeko modu tradizionalaren lehiakide zuzenak gertatzen dira.
 - c) Autoa oro har jende guztiaren eskura egoteak bizitzeko estiloa aldatu du, baina, eskaintza erakargarria eta kalitatezkoa egiteko ahalmen ekonomikoaren eta azpiegituren aldetik hiru hiriburuei erronka egiteko asmorik gabe ere, Eibarrek ahalegin etengabea egin behar du bere kultur zerbitzuen katalogoan. Hausnarketa egin beharra dago sistemaren osotasunaz eta sistema horren xehetasun bakoitzaz, hiriaren ondasunei prestigioa emateko eta hutsuneak zuzentzeko helburuaz.
- belaunaldi gazteek elkarrekin aurreko belaunaldiak ez ordezkatzeari:

Udalerriko kultur kolektiboen eta erakundeen lanari bizitasuna ematea da helburua, udalerriaren kultur garapenean funtsezko eragileak izan baitira eta baita orain ere. Uni Kultur Elkartea, Eibar Kirol Kluba, Sostoa, Cielito Musika Banda, Usartza Txistularien Banda eta beste talde askok ospe handia dute hirian, eskualdean, eta baita urrunago ere.

Bai beste Udalekiko harremanetan, bai Eibarko bertako kolektiboekin egindako bileretan, elkarteen krisia aipatzen da, eta belaunaldi berriak kudeaketa- eta exekuzio-eginkizunetan inplikatzeko premia. Inplikazio hori gertatzen ez bada, elkarre horietako asko, denborarekin, desagertu egingo dira.

- Kulturartekotasuna

Migrazio-jario berriek Eibarko kaleen irudia aldatu dute. Eibarrek historian zehar hiri abegitsua dela erakutsi badu ere, hiritar berriak gurearekin oso zerikusi gutxi duten kulturetatik datoz. Iritsi berriekiko elkarbizitzak geure kultura aberasten eta sendotzen lagunduko diguten kultur erakustaldi berriak ezagutzeko eskaintzen digun aukera hori erronka handia da, eta baliatzen jakin behar dugu.

Kultur ekintzak txertakuntzarako elementu garrantzitsua dira. Kultur aniztasuna errespetatuz, pertsona guztiak hiriko kultur bizimoduan txertatzea eta hartan parte hartzea bihurtu da orain helburua.

3.- KULTUR EKINTZA HIRIAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN ESPARRUAN

1998ko apirilean, Eibarko Plan Estrategikoak ondoko helburu nagusi hau adierazten zuen:

“Eibar hiri berriztatua, dinamikoa eta kalitatezkoa bihurtzea, Debarren eskualdean lehendik duen hiriburu-izatea sendotuz, lurren erabileraren hobekuntza urbanistiko baten bitartez, ekoizpenean hobeto orekaturiko hiri bat eta hiritarrarentzat erakargarria izatea, Euskal Herrian duen protagonismoa eta kanpoko proiektzioa areagotuko dituen”.

3 jarduera-ildoak “Hiria bizi-kalitate handiagoaz hornitzea” proposatzen zuen. Helburuen artean, kultur ekintzaren esparruan, ondoko hau adierazten zen: “Azpiegitura soziokultural hobeak eta aisialdirako zerbitzu eta jarduerak eskaintzea, eskualdeko hiriburu bati dagokion neurrian”, ondorengo ekimen hauekin:

3.3.2. ekintza

Azpiegitura soziokulturalen egitarau baten garapena:

1. Coliseo-Arte Eszenikoen Zentroaren proiektua burutzea.
Museoetarako espazio elkarreragileak ezarri (armak, industria, txirrindularitza, ehiza, damaskinatua, Lucas Alberdi...)
2. Eskualdeko sorkuntza artistikorako zentroa.
3. Eskola publikoak orduz kanpo irekitzea, hiritarrek “gizarte-etxe” gisa

erabili ahal izan ditzaten.

4. Gazteentzako zentro soziala sortzea.

3.3.4. ekintza

- Jarduera programa bat garatzea Eibarko kultur eta aisialdirako ekipamendu nagusientzat: Coliseoa, asteburuak eta jaiegunak, kirol-ekintzak eta aisialdia. Eibarko auzoetan, gazteentzat bereziki, gizarte-jardueren programa bat garatzea.

3.3.5. ekintza

- Eibarren zerbitzurik aberatsenak eta osoenak eskaintzeko hizkuntz faktoreak garatzea: aisialdiko denbora, hirugarren sektorea.

Ekintza horietako asko burutuak dira jadanik, eta beste batzuk oraintxe ari dira bideratzen:

- 3.3.2. ekintzari dagokionez, Coliseo proiektua egiten ari da, eta egiten ari da halaber museoa. Errota Zentroa zabaldu da, gazteentzako gizarte-zentro baten sorreraren eskaerari erantzunez. Zabalik dago Legarreko Musika Sorkuntzako Zentroa, eta urratsak egiten ari dira Arte Sorkuntzako Zentro bat zabaltzeko.
- 3.3.4. ekintzari dagokionez, aste-bukaeretan Gazte leku Errota eta Portalea zabaltzen dira; azken hori gazteek erabiltzen dute batez ere. Kultur egitarauari dagokionez, jarduerak izaten dira aste-bukaeretan, ipuin-kontalarien programaketarekin, haur-antzikio emanaldiekin eta Amañako Aretoko Haur Zinemaren programaketarekin. Ez da ahaztu behar bestalde udalerriko kultur erakundeek eta auzoetako Batzordeek egiten duten lana, bai aste-bukaeretako jarduerari dagokionez, bai kultur programaketari dagokionez.
- Eibar Merkataritza Gune Irekia bezalako ekimenek jarduera-ildo hau sendotzen dute, hiriak eskualde-buru gisa duen irudia zabaltzen baitute, eta beste eremuetako kontsumitzaileentzat erakarpen-balioa dute, publikoaren masa zabalduz.
- 3.3.5 ekintzari dagokionez, alegia, hizkuntz faktoreak sartzeari hizkuntz normalizazioaren aldera, Eibarko Udalak askogatik ere gaituta du lehendik proposatutakoa, EBPN (Euskararen Biziberritzeko Plana) idatziz eta onetsiz.

4.- KULTUR EKINTZAK

4.1. Kultur horniduretako inbertsioa.

Eibarko Udalak, 1994az geroztik, kultur horniduretako inbertsio-politika garrantzitsu bat bideratu du. Horren emaitza dira Legarreko Musika Sorkuntzako Zentroa eta Portalea.

Hamar urte dira azken hori inauguratu zenetik, eta oraintsu aldatuko da, laster Arma Museoa eta Musikako Eskola erantsiko baitzaizkio; Juan San Martín Liburutegia zabaldu egingo da, eta Udal Euskaltegia berrantolatu.

Horrek guztiak 10.983.346 €ko inbertsioa suposatzen du kultur hornikuntzan, eta ondorengo koadroan adierazten dira edukiak, eta eduki horiek nola banatzen eta kudeatzen diren:

Eibarko kultur hornikuntzak	Inbertsioa €	Hornikuntzaren ezaugarriak	Kudeaketa
Portalea Kultur Zentroa	3.790.000	8.000 metro karratuko eraikina, horietatik 6000 Kultur Etxe moduan erabiltzen dira, barnean harturik Marrazketa Eskola, Zeramika Eskola, Juan San Martín Udal Liburutegia, hitzaldi-aretoa, erakusketa-aretoa, bilera-aretoa, lantegiak, sukaldea, argazkigintza-lantegia, dantza-aretoa. Astelehenetik igandera zabaltzen da eskola-garaian, eta azterketa-garaian gaueko ordutegia ere badago liburutegian. Uztailean eta abuztuan astelehenetik ostiralera zabaltzen da. Batez beste, urtean 230.000 bisitaldi izaten ditu.	Hornikuntza zuzenean kudeatzen da, nahiz eta espazio eta jardura jakin batzuk udalerriko kultur kolektiboek edo/eta gizarte-taldeek kudeatzen dituzten.
Portalearen erreforma	1.014.700	Hamar urteko funtzionamenduaren ondoren, Portalea berritu egingo da, Liburutegia zabalduz, Euskaltegia egokituz eta Musika Eskola erantsiz	Udal Euskaltegiaren Fundazioa, Musika Eskolako Patronatua eta kudeaketa zuzena.
Museoa	542.242	Egiten ari da. Portalea eraikineko 800 metro karratutan kokatuko da. Arma Museoan bildumako armak ikusgai jarriko dira, eta bertako industriaren bilakaera teknologikoa kontatuko da.	Zuzenean kudeatuko da.
Coliseo Udal Antzokia	5.456.405	Hiru espazio izango ditu: antzokia, 500 eserlekurekin, eta zinemako eta entsaioko beste bi espazio, 80 eserlekurekin.	Zuzenean kudeatuko da.
Legarreko Musika Sorkuntzako Zentroa	180.000	2004an inauguratua, 400 metro karratuko hornikuntza, musikako kolektiboen entsaioentzat. Entsaioko zortzi areto, grabazio-kabina bat, areto balioaniztun bat (lantegiak-bilerak) eta biltegia ditu.	Eibarresa Musika Elkarte Gazteari utzia Kontsezio-erregimenean.
GUZTIRA	10.983.347 €		

2006rako 49 milioi eurokoa zen aurrekontua, eta, hala, inbertsioen partida %42,35ra iritsi zen, eta haietatik %14 kultur horniduretarako erabili ziren (aurrekontu osoaren %6).

4.2. Eibarko kultur hornikuntzen erabilerak eta zerbitzuak

Portalean aurrera eta atzera dabilen jendetzak adierazten du ondoena nola asmatu den espazioen banaketan eta instalazioen kalitatean. Liburutegia da zerbitzu nagusia, baina gainerako zerbitzuak, hau da, bilera-aretoak, eskolak, lantegiak... are gehiago sendotuko dira Juan Bautista Guisasola Musika Eskola AYA zaharrera eramaten denean eta Arma Museoak ateak zabaltzen ditenean.

Urtebeteko epean, Kultur Etxean bilduko dira titularra Udala den kultur zerbitzu guztiak. Zentralizazio honek gizarte-kohesioa areagotuko du eta hobeto erabiliko dira eskura ditugun baliabideak.

Dagoeneko 50 baino gehiago dira ikasturtean zehar Portaleako areto partekatuak beren aldizkako bilerak egiteko, eta gainerako espazioak (lantegiak, areto nagusia) noizean behingo jardueretarako erabiltzen dituzten kolektiboak.

Portalea, bertako azpiegitura eta kudeaketa-dinamika, ondo lotzen da biztanleen egiazko premiekin, eta argi dago, kasu honetan, ondare publikoaren zentzua eta esanahia haiek ondo ulertu dutela, hamar urtez baino gehiagoz etengabe erabili diren instalazioak egoera onean daudela kontuan hartzen bada.

Baina ezin da ahaztu eibartar asko direla oraindik Portaleara joaten ez direnak, edota badirela bertan oso-oso jende gutxi joaten diren zerbitzuak (erakusketa-aretoa). Irudia dena den une honetan, hiriko ardatz nagusian erakusleihak ez izateak irudimena are gehiago erabiltzera behartzen du Udala, gustatu eta ohitura sor dezakeen lehen bisitaldi hori lortzeko.

Musikako Eskola eta Museoa eraikin berean egoteak lagunduko du helburu hori lortzen, erabiltzaile berriak erakarri, zeren, eskolako ikasleek gainera, Errebalen entsaiatzeko zuten abestaldeak eta gainerako kolektiboek Portalean ere entsaiatzeko aukera izango baitute. Arma Museoak, bestalde, enpresa-sektorea eta beste hirietako hiritarrak nahi ditu erakarri.

Coliseo antzokiari dagokionez, inaugurazioak hiriko ardatz nagusian antzerti-zentro bat izateko premia aseko du. Hezkuntza Esparrua —**Unibertsitate Laboraleko**— antzokia espazio iristen erraza eta ondo hornitutakoa den arren, urruti samar dagoelarik, ez da horren erakargarria gertatzen antzerti-jardunaldietatik kanpo, eta ezinezkoa gertatzen da urtean zehar bertan jarduerak antolatzea.

Hala eta guztiz ere, bestelako aukera-faltak eta arduradunen jarrera egokiak Hezkuntza Esparruko Antzokia erabiltzeko usadioa ekarri dute, bai antzerti eta musika-ikuskarientzat, bai zineklubaren dinamikari eusteko. Udal titulartasuna duten hornikuntzek bezala, Eibarko Hezkuntza Esparruak beti eskaini dizkie azpiegitura eta babesa gainerako kolektiboek.

San Andres parrokiako arduradunak prest egon dira beti beren espazioak uzteko, bertan kontzertuak egin zitezen. Hala, bai eibartar koruek, bai Udalak, elizaren laguntza izan dute Musikaldiaren egitaraua edo era horretako beste ekitaldi batzuk osatzeko garaian.

Epe laburrean, Coliseoa zabalik egonda, onura handia atera ahal izango zaio kultur eskaintzari. Espero izatekoa da kultur-dinamika handia izango dela, kontuan izanda helduentzako programaketa egonkor bat badela -orain arte hornikuntza egokirik gabe bizirik iraun duena-, eskola-ordutegian eskaintzen diren emanaldiak eta familia-aisialdiari bideratutako emanaldiak ugari direla.

Beste erronka bat da badirela hiritar batzuk antolatzen diren jardueretara sekula joaten ez direnak, edota horniduretatik ematen diren zerbitzuez baliatzen ez direnak.

Gainerako hornidurei dagokienez, elkarteek kudeatzen dituzte. Elkarte horietako askok **egoitzak udalaren jabetzako lekuetan** dituzte (Txirrindularitza Kluba, filatelikoak, Artisten Elkartea, ...*eta kitto...*), eta bai **Arrate Kultura Elkarteak** bai **Eibarko Klub Deportiboak**, bazkideen kopuruaren eta ahalmen ekonomikoaren arabera nagusiak direnak, beren **espazio propioak dauzkate**, eta toki ezin hobeetan.

UEUK, Udako Euskal Unibertsitateak, Markeskua jauregia baliatzen du, Udalak emandako zessio-erregimenean; **Legarreko** entsaio-zentroa kudeatzeko formula berriz kontzesio administratibokoa da. Aitzindaria da era honetako espazioetan, eta bertan hogeit bat kolektibo aritzen dira lanean.

Udaletxeak espazio berri bat du Barrena kalean, **Ondamendiko** antzinako eskolaurrean, zeina artisten lantegi gisa ere erabili nahi baita, oraingoan ere autogestio-erregimenean.

Bestalde, udal hornikuntza ugari daude bestelako helburuetarako erabiltzen direnak (eskolak, zahar etxeak, San Andres zahar egoitza, Andretekoa...), eta badago haietara joatea kultur dinamikako kasu puntualetan. Orain arte, ez da behar bezala baliatu hornikuntza hauen eta beraien erabilera-ahamenen arteko lotura, kultur jardueren zabalkunde, sorkuntza, emaitza eta abarri dagokienez.

4.3. Parte-hartzea: kultur eragileak

Gizarte-egitura aktiboa, konprometitua eta ugaria duelako nabarmentzen da Eibar. Beste udalekiko konparazioak eta bertako instalazioen bisitak, udal-azpiegituren kalitatea eta kultur eskaintzaren maila handia azpimarratzen dute.

Ez da toki askotan Eibarko Antzerki Jardunaldiak bezalako egitarau bat ikusten. Uni Kultur Elkarteak antolatzen ditu jardunaldi hauek, hogeita hamar urte badituen boluntarioen elkartea. Modu berean azpimarra daiteke Euskal Bizikletak, profesionalen bizikleta-lehiaketa bat antolatzen egiten duen lana, edota Eibar Klub Deportiboak, Gipuzkoan bazkide gehienak dituen bigarrenak, egiten duena.

Dantza, antzerkia, musika, pintura, argazkigintza, zinema... arte-diziplina edozein delarik ere, Eibarren lanean diharduten kolektibotakoren batekin parteka daiteke. Horrez gainera, hiriaren neurriari esker erraza da haiekin harremanetan jartzea, kideren baten bitartez nahiz bitartekari gisa jokatzeko duten ezagunen bitartez.

Neurriz udalerri ertaina izateak ere badu bere abantaila, alegia, erraztu egiten ditu kolektiboen arteko harremanak, proiektu kolektiboetan lan egiten ohituak baitaude. Udalaren ardura ez da beharrezkoa ia ekimenak eta diziplinarteko egitarauak abian jartzeko (Euskal Jaia, Arrateko Amaren Dantza, txistularien alardea, danborrada...), baina bai ordea finantzaketa-iturri gisa.

Udalaren borondatea da kultur egitarauaren kudeaketan subsidiarotasunaren printzipioa aplikatzea. Udalerriko kultur erakunde guztiekin dago Eibarko Udala harremanetan, gehienekin diru-laguntzen edo hitzarmen baten bitartez. Halakorik gertatzen ez denean, azpiegituraz hornituz laguntzen zaie beti kolektiboek (lokalak, oholtzak, lotura elektrikoak utziz) eta espazio publikoak erabiltzeko baimena emanez laguntzen zaie.

Harreman formala dago 23 erakunderekin, eta hau da banaketa: 8 hitzarmen, 10 diru-laguntza kultur erakundeei eta 5 diru-laguntza auzoetako festa-batzordeei. Ondoren ageri dira:

- Hitzarmenak ondorengo kolektibo hauekin: Uni Kultur Elkarte, Klub Deportiboa (bertan sartzen da Kezka Dantza taldea), Sostoa, ...eta Kitto!, AEK, Amaña Kultur Aretoa, Cielito Musika Banda, Usartza Txistulari Banda. 2006ko aurrekontuan 367.500 € daude aurrez ikusiak.
- Kultur erakundeei emandako diru-laguntzak: As Burgas Galiziako Etxea, Cantabriako Etxea, Arrate Elkarte Filatelikoa, Goruntz Abesbatza, Eibar Aldizkaria, S.C. Arrate, Plano Corto, Eskozia la Brava eta Badihardugu Euskara Elkarte. 2007ko aurrekontuan 36.000 € jasotzen dira.
- Auzoentzako diru-laguntzak, festa-batzordeentzat: Amaña, Azitain, San Kristobal, Urki, Dos de Mayo, Abontza, San Salvador, Aginaga, San Roman, Santa Kruz eta San Isidro. Aurrekontua 36.000,00 €koa da.

Bereziki aipatu behar da halaber zaindarien festen antolamendua, Eibarko Udalak zuzenean kudeatzen duena. Hauetan, bilerak irekietarako deia egiten da, lankidetzan jardun nahi duten pertsona eta elkarte guztientzat zabalik baitaude. Era horretan, Aratosteak jaietan 8 erakundek parte hartzen dute, San Joanetan 31 erakundek —kirol erakundeak ere badira tartean—, Arraten auzokoek osaturiko batzorde batek eta San Andresen beste 10 erakundek; diru-laguntzen aurrekontua, kasu honetan, 46.541 €koa da.

Datu horiek, ordea, engainagarriak izan daitezke, zeren talde bakoitzaren baitan, konpromisoa, izan, pertsona bakar batena izaten baita, edota oso pertsona kopuru txiki batena. Kopuruaren ondorioz (jardueren zenbatekoen eta kostuaren kopuruak) eta eibartar askok alor askotan aktiboki dihardutelako, hiritarrek, oro har, elkarteen errealitatea egiaz dena baino handiagoa ikusten du.

Kultur kolektiboetan dagoen ordezkapen-faltak, kasu batzuetan, antolatzaileen nekea eragin du, ohiko programaketari eutsi eta beren kontsumo propioarako produzitu behar baitote. Baina egoera horrengatik ere, badira bestelako kasuak ere, autokonfiantza maila handi bati eusten zaiona; bazkideak motibatuko dituzten erronka berriei heldu behar zaiela ulertu da, eta proposamen berrizaleagoak eta arriskutsuagoak bideratzen saiatzen dira, zale berriak erakartzeko xedeaz.

Udalarentzat, lehen mailako premia da kolektiboen eta elkarteen egoera, eginkizun, helburu eta abarren berri jakitea, interes komunak izan ditzaketen pertsonak erakartzeko, gazteenak bereziki, baina beti ere ahaztu gabe badirela beste kolektibo batzuk denbora gehiago eta konpromisorako ahalmen handiagoa dutenak (jubilatua, prejubilatua, pentsionista...).

Illo beretik, hiriaren osaera demografikoa gero eta ugariagoa eta konplexuagoa den honetan, zenbait sektore ez da ia batere ageri kultur kolektiboetan. Etorkinek, esate baterako, udal-eroldako %3,54 osatzen dute dagoeneko, baina ez dira ia inon ageri kolektibo tradizionaletan. Bereziki garrantzitsua da eta denentzat interesgarria talde hauetan ere Eibarko gaur egungo ugartasun demografikoa agertzea.

Bestalde, antolatzaileek laneko eginkizunak eta familiakoak beren zaletasunekin adostu

behar dituzte, eta horrek zaildu egiten du elkarteko kideen eta Udalaren arteko harremana. Denbora mugatua dutelarik, halabeharrez izaten da solaskide bat baino gehiago talde bakoitzaren baitan; eta horrek informazio-galera ekar dezake, bi zentzuetan, Administrazioarekiko harremanetan.

Izan ere, Udalak, finantzaketa-gastuak bere gain hartzeaz gainera, urtetik urtera material-eskaera gehiago izaten du ospakizunak antolatzeko. Baina, hala eta guztiz ere, eta era askotako motiboengatik, ohiko gauza izaten da Udalak kultur jardueretan egiten duen ahalegina ikusezina gertatzea. Zesarrari Zesarrarena dena emateko betebeharra, aitorpen-auzia izan ezik, orobat da hiritar guztiek beren zergekin finantzatu duten hartan parte hartzeko, gozatzeko eta berena delakoan sentitzeko eskubidea baliaraztea.

Hala, baldin Udalak kalitatezko zerbitzu bat eskaini behar badu eta eskari guztiei kasu egin behar badie, taldeak beren artean eta erakundearekin koordinatzeko modua ezarri beharko da.

Horregatik guztiagatik, Euskara, Kultura eta Hizkuntz Zerbitzuen sailak lanean jarraitu behar du hobekuntza etengabearen prozesuarekin, erronka berriak bere gain hartuz; besteak beste, kolektiboekiko harremanak baliatu behar ditu planifikazio hori abian jartzerakoan, gastu publikoan denok dugun erantzukizuna aintzat hartzeko.

Udalak bideraturiko kontrola, jarraipena, ebaluazioa..., kolektiboek sustaturiko baina funts publikoek finantzaturiko ekintza eta jardueretan, halabeharrezkoa da eta ezin da saihestu.

Baina ustekabeko topaketaren egunerokotasuna baino zerbait gehiago beharko da hiriko eragileen arteko elkarlana indartzeko. Kultur ekintzaren eraginkortasuna hobetu ahal izateko, beharrezko da koordinazio-sistemak eta estrategia bateratuak garatzeko sistemak sortzea.

Eta honetan inplikaturiko parte guztiek ondo asko dakiten bezala, Udalari dagokio prozesu honetan buruzagitza izatea. Prozesu hau, bestalde, kultur ekintzaren eremu guztietara zabaltzea behar litzateke (auzoko jaietara, adibidez), eta orobat balio behar luke urte osoan zehar programaketa orekatzeko, urtean egun gehiegitan jarduera gehiegi izaten baitira, eta beste batzuetan berriz ez dago inolako kultur jarduerarik.

Edozein delarik ere aurreko premisa guztiak bideratzeko aukeratzen den formula, ahalegin garrantzitsua egin beharko da hura abian jartzeko, ondo saritua izango den ahalegina, nolanahi ere, harreman hauek, itxurazko motiborik gabe, kaltetu ahal izan dituzten kolektiboen arteko eta sailarekiko susmo txarrak, lehia etab. desagertuko baitira.

4.4. Erakunde publikoen ekintzak: Udala, Diputazioa, eskola...

Udalak orientazio aldaketa egin beharra ikusten du. Kulturara bideratutako aurrekontuetan egiten den ahalegin ekonomikoa bermea da erronka berriei heltzeko orduan. Erronka horien abiapuntua hobekuntzako estrategien, politiken eta ekintzen definizioa izan beharko da, modu esplizitu eta bateratuan.

Bestalde, Udaleko beste sailen hausnarketak eta ekarpenak ere modu formalean eta egituratuan txertatu behar dira kultur eskaintza osatzen duten ekintza guztien

planifikazioan eta ebaluazioan. Orobat da beharrezko immigrazioan, aukeraberdintasunean, drogomendekotasunen prebentzioan... Udalan diharduten adituen lana eta haiekiko harremanak baliatzea, ikusmolde horiek gero lan desberdinetan txertatu ahal izateko.

Kultur programaketan parte hartzen duten gainerako sailekiko koordinazioaren hobekuntza (Ego Ibarra, Alkatetza, Gizartekintza, Udal Polizia...) kultur kanpainak edota sustapenak egiten dituzten beste erakunde edo kolektiboetara ere zabaltzea behar da.

Ekimen horien emaitzak geroago, biztanleria orokorrari dagokionez, ondorio positiboak izango baditu ere, hezkuntzaren mundua izango da onurarik handienetakoa aterako duen kolektibo bat. Izan ere, mundu hori hartzaile gatibua da, era guztietako eskaintzak, gonbidapenak, kanpainak, sustapenak... hartu ohi dituen, eta zailtasunak izaten ditu jasotzen duen informazio guztia irazteko eta interesgarritzat jotzen dituen proposamenak bere programaketan txertatzeko.

Ekimen pribatuari dagokionez berriz, iritsi nahi den eskemak, harremanen eta kultur dinamikaren antolamenduari dagokionak, aurrezki kuxak behartzeko balio beharko du, emaitzatik beren enpresa-proiektuan txertaturiko babesletzara igaro daitezen.

Bestalde, hiri mailan egiten ari garen hausnarketa hau, era berean ari da egiten gipuzkoar udal guztien artean, Diputazioak bultzaturik. Kultur Zuzendaritzaren asmoa da erakunde berezi bat sortzea, Koldo Mitxelena Erakundea akronimoaren pean (www.km-e.net) probintzia osoan dauden kultur baliabideak hobeto baliatzeko balio izango duena.

4.5. Hartzailea

Aisialdiaren eta denbora librearen alorrean lan egiteak lan hori subjektibotasunez balioztatuko dela esan nahi du, norberaren jarreraren, norberaren filien eta fobien arabera, eta une jakin bateko gogo-egoerak agintzen duenaren arabera. Hortaz, eragingarri berberaren aurrean, kontraesan bat izaten da beti, batzuetan ematen diren kritiken eta besteetan ematen diren txaloen artean; pertzeptzio hori ez da gertaera konkretuetan oinarritzen, baina hala ere mugitzea eragozten duten iritzi-joerak sortzen ditu.

Hala, hilerio argitaratzen den kultur gida arma eraginkorra da Eibarren ezer ez dagoelako leloaren kontra borroka egiteko, baina hala ere kezagarria gertatzen da eskaintza guztia ikusarazteko gaitasun falta, kultur eragile guztiek egiten duten zabalkuntza-lanarengatik ere.

Planteamendu orokorregiek, kultur eskaintza plazaratzeko garaian, informazio-galera ekar dezakete; orobat ekar dezakete era guztietako ekintzetan gutxiengo "hauta" bat izatea, baina eskaintzen diren jardura eta zerbitzu ia guzti-guztietan biztanleriaren kolektibo jakin batzuk falta izatea, izan adin taldeak, egoitza-leku edota jatorri jakinekoak....

Baina egia da halaber kultur usadioen maila apala ez dela, ez gertaera lokala, ez aldi batekoa; egiturazko krisi bat da, lehen munduko biztanleriari osorik eragiten diona. Bestalde, ahalmen ekonomikorik handiena duten hiritarrak izaten dira gainera

erakundeek eskaintzen dituzten baliabideak gehiena aprobetxatzen dituztenak, eta gertaera horrek, “Mateo efektua” deitzen denak, aspalditik kezkatzen ditu soziologoak (izan ere, fenomeno bera gertatzen da sortzaileen munduan, klerarienean...).

EDE fundazioak egin duen azterlan baten arabera, 14 eta 20 urte bitarteko eibartar gazteei iruditzen zaie ez dutela behar bezala gozatzen hiriko aisialdi eta denbora libreko eskaintzaz, nahiz eta aitortzen duten maiz erabiltzen dituztela kultur eta kirol-zerbitzuak, baliatzen dituztela bekak eta diru-laguntzak, joaten direla kultur ekintzetara (festarekin lotuak daudenetara batez ere)... Eskaintza publikoaren balioaren aitorpen-falta horrek berak adierazten du nolako naturaltasunez txertatu duten gazteek eskaintza hori beren bizitza-estiloan.

Nolanahi ere, gazteek duten konpromisoari uko egiteko joerak eta talde gisa jarduteko duten premiak behartu gaituzte jarduerak zein adin-tarteri bideratu behar zaizkion berraztertzerantz; izan ere, badago gizarte eskaera bat adin-tarte horretarako zerbitzuak exijitzen dituenak, nahiz eta adin-tarte horretan daudenek nahiago duten euren aisialdia erakundeen babesetik kanpo antolatu.

Jadanik aisialdiaz gozatzeko lokalak alokatzeko usadioa errotua dago, eta aukera egokia ere izan liteke, espazio horiek informazio-zentro moduan, kolektiboen arteko jardueren egoitza moduan, jarduerak antolatzeko erreferentzia gisa etab. erabiltzea posible balitz; Dena dela, abiapuntu egokia izan da kuadrillek jarduera zehatz batzuk egiteko egindako proposamena, Udalarekin harremanetan jarri izana, eta San Juan jaietan zenbait ekitaldi antolatzeko erantzukizuna hartu izana.

Hala, ezkortasunari edo inguruko beste udalerriekiko konparazioaren kontsolamenduari uko eginez, gaur arteko ez-entzuleriaren kultur ekintzetako asistentzia hobetzeko sor daitezkeen aukerak baliatu behar dira, eta ikusleen ihesa saihestu; izan ere, gure iritzian, bertaratutakoen eta haien inguruaren ongi izatean, eta, horren ondorioz, bizitza-kalitatearen hobekuntzan, oso ondorio onak dituzte. Aldi berean, honek guztiak auzotar berrien txertakuntza indartzeko balio izango du, eta erakarpen-ardatza gertatuko da, merkataritzaren sektorea zeharka hobetuz, eta era horretan eskualdeko hiriburu-izatea sendotuz.

4.6. Prestakuntza

Eibarko Udalak, prestakuntzaren alorrean, modu desberdinetan jokatzeko du:

- Zuzenean ematen diren eskolak:

Eibarko marrazketa eskola XVIII. mendean sortu zen, armen fabrikazioaren prozesuaren barruan grabatuan trebatutako eskulangileak prestatzeko premiaren ondorioz. Sortu zen momentuan mutilentzako bakarrik zen, baina XIX. mendeaz geroztik neskek ere badute sarbidea eskolan.

Gaur egun, bai **Marrazketa eta Margolaritza Eskolak**, bai **Zeramikakoak**, Portalean dute egoitza, eta bina irakasle dituzte. Une honetan, 125 ikasle daude aurrenekoan eta

39 bigarrenen. Udalak ez du inongo erakundetatik haiei eusteko laguntzarik jasotzen.

Musikako Eskola patronatu baten bitartez kudeatzean da; patronatu horretan, alderdi politikoez gainera, zeinak osoko bilkurako ordezkariak bera baitute, irakasleen, ikasleen eta familien ordezkariak parte hartzen dute. Teorian finantzaketa parte berdinetan zatitzekoa bada ere —Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta matrikulen artean—, praktikan udalaren ekarpenak gastuen ia erdia estaltzen du.

Eskola hauei dagokienez, artearen zaletasuna hiritarren artean sustatzea da helburua, ez besterik, baina beti ere etorkizuneko profesionalen prestakuntzan eta sustapenean parte hartzeari uko egin gabe. Interesgarria dirudi Musikako Patronatuan hausnarketa estrategiko berezi bat egitea, era horretan kokagune berriaren aukerak hasieratik bertatik baliatu ahal izango baitira.

Duela hiru urte, Udalak **artista gazteentzako sakontze-beka** bat sortu zuen. 18.000 euroz hornitua dago, 2004an gutxieneko baldintzak betetzen zituztenen artean banatu zen, eta 2005ean ez zitzaion inori eman. Hori dela-eta, bi urtez espero ziren emaitzak lortu ez direlarik, 2006an Udalak uko egin zion deialdia egiteari.

Ikastaroen antolamendua da Udalak sustatzen duen beste prestakuntza-ildo bat. Beste diziplina edo zaletasunen ingurukoak (eskulanak, gastronomia...), eskariaren arabera antolatzen dira, eta unean unekoa egiten da. Erantzuna, sukaldekoan izan ezik, nahiko eskasa da.

Ekimen pribatuak jadanik eskaintzen dituen materialei, diziplinei, zaletasunei... uko egiteak asko mugatzen du jokatzeko ahalmena, baina hiritarrekiko harreman-bideak aktibatu behar lirateke, haien auzi eta kezka desberdinei erantzun egokia emateko gai izateko.

- Beste erakundeei emandako sostengua:

Azpimarratzekoa da Eibarko Klub Deportiboak dantzaren eta argazkigintzaren alorrean garatutako lana. Bi kasuetan, jarduera horiek hitzarmen bitartez finantzatzeaz gainera, Udalak jarduerak egiteko lekuak uzten ditu.

Dantzako eskolaren kudeaketa gainerakoen ez bezalako eskema baten arabera egiten da. Kezka taldeak koordinatzen du, eta Udalaren, Eibarko Klub Deportiboaren eta matrikulen bitartez eskuratutakoaren arteko aurrekontu batekin gauzatzen da. Ikasleen kopurua 400etik gorakoa da, kopuru esanguratsua, baldin kontuan hartzen bada diziplina honen gizarte-ospe eskasa eta programaketa egonkor baten falta.

Argazkigintzari dagokionez, ordu kopuru mugatuko ikastaroak izaten direlarik, zabalkuntzari eskainitako kapituluan sartu da (4.7.2)

UEUren kasuari dagokionez, diru-laguntzak eskaintzen zaizkie eibartar ikasleei, bai Eibarren bertan eskaintzen duten prestakuntzarako, bai Biarritzeko eta Iruñeko udako ikastaroetan parte hartzeko. Udako Euskal Unibertsitatea ere udalaren jabetzakoa den leku batean dago kokatua, eta Udalarekin duen harremana hasia da fruituak ematen: Juan San Martin bekak seigarren edizioan, egitarau egonkorra urte osoan zehar, bertako enpresekiko lankidetzatza...

4.7. Zabalkundea

Kultur zabalkundearen alorrean, Eibarko Udalaren eginkizuna, bai sustatzaile gisa, bai lankide gisa, ondorengo eremu hauetan zentratzen da:

Antzertia
Hitzaldiak, mahai-inguruak...
Ikus-entzunezkoak
Literatura
Musika
Plastika

4.7.1. Antzerkia

Udalaren aurren-aurreneko betebeharra, atal honen hasieran, Uni Kultur Elkarteko arduradunei eskerrak eta zorionak ematea da, antzerkia sustatzen egin duten lanarengatik. Antzerti Jardunaldiek laster beteko dute beren hogeita hamargarren urteurrena. Proiektu honen egonkortasunak eta kalitateak sektorearen eta hiritarren erreferentia bihurtu dute hiria, eta aldi berean ikusle jantziak eta esker onekoak sortu dituzte, konpainien artean ere famatuak direnak.

Izan ere, jardunaldietara heldu baino lehen, ikusle asko dira antzertiarekin duten lehen harremana Debabarreneko Antzerki Erakusketaren bitartez dutena. Antolatzaileen lehia dela-eta, ez dute konpainia profesionalen lana bakarrik programatzen, aldiz, eskolarako garraioaz ere arduratzen dira, eta haien eskura jartzen dute bai antzerkiko hornikuntza guztia, bai langileak, ikasleek beren lan propioak taulara ditzaten.

Gidoien eta artikuluen Narruzko Zezen sariaren helburua orobat da gazteenen artean antzerkiaren bestelako ikusmolde bat, hau da, egileen lana, ezagutaraztea.

Udalak ere, bestalde, haur-ikuskari bat antolatzeko konpromisoa hartu du familiekin, gutxienez hilean behin, eta nahiz eta erantzunak desberdinak izan diren, onartzeko modukoak izan dira, Portaleak hartzen duen ikusleen kopurua, eta eguraldi ona hasten denean kaleko antzerkia programatzen dela kontuan izanik.

Coliseo antzokia ere erabili izango delarik, birplanteatu egin beharko da emanaldien banaketa urtean zehar; izan ere, tarteko neurriko proposamenentzat agertoki bakarra eskura izanik, eragozpen bat gertatzen zen ikusleak erakartzeko garaian, jardunaldien arrakasta handietatik kanpora.

Era berean, Coliseo antzokiari esker dantza-egitarau bat antolatu ahal izango da, orain arte urria eta oso noizbehinkakoa izan dena. Alor honetan egiteko dago oraindik ikusleak prestatzeko ahalegina; erronka horretarako, oso garrantzitsua izango da kalitatezko kultur produktuen eta kontsumo errazterako sortuak direnen artean bereiztea eta asmatzea.

4.7.2. Irudia: zinema, argazkigintza...

Coliseo antzokiaren zabalkundearekin, beste bi pantaila gehiago izango dira orain Eibarren, lehendik zeudenei erantsita. Dena dela, zinemara joaten direnei buruzko datuek (2,6 sarrera biztanle eta urteko) azpiegitura honen egitekoa birplanteatzera behartzen dute, eta, hala, hasieratik bertatik Coliseok uko egingo dio ekimen pribatuarekin lehiatzeari, eta sailetara eta jaialdietara bideratuko du bere egitaraua.

Coliseo beste aukera bat izango da datorren urtetik aurrera. Orain arte suari bizirik eutsi dietenenganako errespetuz jokatu beharko du Udalak, eta haien esperientzia beharko du baliatu.

Zentzu berean, eta alor berean halaber, kolektiboen garrantzia azpimarratu behar da. Klub Deportiboaren argazkigintza-sailak, Uni Kultur Elkartek eta Plano Corto Elkartek harreman sinbiotikoa dute Udalarekin, eta bi parteak, eta hiritarrak oro har, gertatzen dira harreman horren onuradunak.

Argazkigintzako batzordeak bilera bat egiten du asteen behin **Klub Deportiboaren** egoitzan, esperientzien eta jakintzen trukea sustatzeko. Beteranoez gainera, hasiberriak ere hurbildu ohi dira Toribio Etxebarriako egoitzara, Udalak urtero, Klubarekin lankidetzan, antolatzen duen argazkigintzako ikastarora. Azken ikasturtean, Bigarren Hezkuntzako ikasleei ere eskaini zitzaion ikastaro bat, larunbat goizetan.

Argazkilaritza Maiatzean ekimenak, nahiko berria bada ere, aski maila egokia eskuratu duela esan daiteke, kalitateari eta argazkilaritzaren munduak egin dion aitortpenari dagokionez. Azkeneko edizioan, zaleek, udal erakundearen laguntza ekonomikoarekin, sei erakusketa antolatu zituzten, rally bat eta trebatze-lantegi bat.

Orobat urrian bada argazki onak ikusteko aukera, Indalecio Ojanguren lehiaketan aurkeztu diren obren erakusketa dela medio. 2007an "argazkilari arranoa" gogoratzen duen lehiaketa honen hogeigarren edizioa ospatuko da.

Zinemari dagokionez, udazkenean zazpi urte beteko ditu **Asier Errasti jaialdiak**. Epaimahaikoen zentzu ona irabazleak aukeratzerakoan eta Javier Agirresaroberen laguntza, sariketari izena emanez eta sari-banaketara pertsonalki etorriz, balio handikoak izan dira lehiaketari ospea emateko. Jauzi kualitatibo bat espero da gainera Coliseoaren inaugurazioarekin.

Plano Corto kolektiboak elkartearen munduak oro har dituen eragozpen berberak ditu. Uni Kultur Elkartea zine-klubaren saila ere pertsona bakar baten esku dagoela esan daiteke. **Arduradunaren disposizioari eta berak duen sektorearen ezagutzari esker, programaketa egonkor bat dago neguan eta aire zabaleko zinema-sail bat egiten da udan.**

Gazteen artean zaletasuna sustatzeari dagokionez, erabakigarria izan da **Amaña Kultur Aretoaren** eginkizuna. Neguko igandeetan, Pedro Celayaren ondorengo konpromisoak alternatiba bat eskaintzen dio haurren aisialdiari, eta beste aukera bat jubilatuei, urtean pare bat film ikusteko.

4.7.3. Musika

Juan Bautista Gisasola Musikako Eskolak izena emandako 347 ikasle izateak oso ahalegin ekonomiko handia eskatzen dio Udalari. Zerbitzu honen helburua musikaren zaletasuna hiritarren artean sustatzea da, eta nahiz eta ikasle gehienak umeak diren, ohiko gauza izaten da helduen taldeak sortzea ere.

Ikasle hauek, elkarrekiko truke aberasgarrian, harreman estua dute Eibarko abestaldeekin, **Sostoa** taldearekin batez ere.

Talde honek oso ibilbide luzea du, eta etengabe saiatzen da zale berriak erakartzen. Sortu zenez geroztik, Gabonetan, Aste Santuan eta San Joanetan kontzertuak eskaintzeko konpromisoari eutsi dio. Horrez gainera, Santa Ageda eta Santa Zezilia jaiak finkoak izaten dira halaber urte osoko egutegian.

Cielito musika-bandari eta **Usartza txistulari-bandari** dagokienez, urtero berriztatzen dute Udalarekin duten hitzarmena. Batean zein bestean, azken urteotan gaztetu direla argi badago ere, eskasak dira taldekide berriak. Agerikoa da guztiz musikako eskolarekiko harremanak indartu egin behar direla, ikasleak errazago alda daitezen bertako taldeetara. Baina Patronatuarentzat helburu hori lehen mailakoa bada ere, egia da familien lankidetzak gabe alferreko ahalegina izango dela guztiz.

Goruntz ahots zuriko abestaldeak ere leialtasunez parte hartu ohi du Aginagako kontzertuan, eta prest egoten da beti Udalarekin eta hiriko beste kolektiboekin elkarlanean jarduteko.

Uni Kultur Elkartearen eta Tolosako Ekinbide Etxearen artean dagoen harreman estuari esker, Eibartik igarotzen dira abestaldeen lehiaketan parte hartzen duten kolektiborik hoberenak, eta, baita Europako Grand Prix-en parte hartzen dutenak ere. Koruak instrumentu-emanaldiren batekin osatzen dira **Musikaldiaren** egitarauan, eta urte osoan zehar oso noizbehinka egiten dira era honetako kontzertuak. **Ikusleen kopurua baxu samarra izaten dela esan daiteke, batez ere, kontuan hartzen bada, Eskolaz beraz gainera, zenbat musika talde dauden hirian. Dena den, jadanik, hor ere hazia fruituak ematen hasia dela esan daiteke.**

Egile modernoagoei dagokienez, lehen mailakoen cachetak eta ekoizpenak izaten dituen eragozpenek asko zailtzen dute programaketa erakargarri baten antolamendua. Gaur egun, era honetako jaialdi bat antolatzeke ahalegin bat egiten da San Joango jaien inguruan. Gainerakoan, txikiagoak izaten dira urtean zehar antolatzen diren ekitaldiak.

Rocka, popa, folka... estilo horiek jarraitzaile asko dituzte egoitza Legarren duen **Eibarko Musikari Gazteen Elkarte**an. Bien bitartean, Hego Amerikako musikak leku bat lortu du, eskola-orduez kanpo, gainerakoan artean, musikako eskolan. Eskolako ohiko taldeen artean, **Ustekabe** fanfarrea aipatu behar da, Patronatuko ikasle izandakoek osatua.

4.7.4. Plastika

Portaleako erakustaretoaren 700 metro karratuan, 15 erakusketa egiten dira batez beste urtean zehar, bai banakako artistenak, bai hiriko kolektiboenak; horrez gainera, helburu didaktikoekin egindako erakusketak ere izaten dira, eskoletako bisitaldi gidatuak hartzen dituztenak. Espazioa hiru partetan bereiz daiteke, eta, hala, lekuaren ahalmena eta **erabilgarritasuna** handitzen dira.

Erakusketetan izaten den bisitarien kopurua, batez beste, txikia da, eta nahiz eta hori ohikoa izan jarduera mota honetan, kezkarria da hala ere. Bigarren solairuan egotea eragozpena izan daiteke, baina Portalean ibiltzen den jende-jarioa balia daiteke agian beste zerbitzuen erabiltzaileak erakustaretora gidatzeko.

Arrate Kultur Elkarteak urtean 30 erakusketa egiten ditu **Topalekun**. Kasu honetan, aretoaren kokagunea, kaleko maila berean, abantaila da bisitariari oro har sarbidea errazteko. Klub Deportiboak ere antolatzen ditu erakusketak bere egoitzan, baina oso noizean behin.

Taldeei dagokienez, **Artisten Elkarteak** tradizio luze bat du. Elkarte honek bere egoitza propioa du, Udalaren jabetza diren lokal batzuetan, Pagei kalean, eta diziplina askotako zaleak biltzen dira bertan. Bestalde, estudio hau erabiltzen ez duten bazkideek lotura estua dute taldearekin, ekimen asko antolatzen baitituzte.

Beste alde batetik, **Eibart** izenpean elkartu dira zenbait eskulangile gazte, beren zaletasunari merkataritza-irtenbide bat emateko asmoarekin. Kolektibo honen aurreneko ekitaldia azoka bat antolatzea izan zen 2006ko Gabonetan, eta arrakasta handi samarra izan zuen.

Kartel lehiaketa eta aire zabaleko pintura-lehiaketa ere arte-sorkuntza sustatzeko ekimenak dira. Horietan guztietan, pertsona helduen lana saritzeaz gainera, badaude haur-kategoriak ere, txikienen artean zaletasuna indartzeko.

4.7.8. Literatura

Juan San Martin liburutegia 10789 dokumentu katalogaturekin inauguratu zen, eta baditu dagoeneko 40.000 baino gehiago, kontsultako, literaturako eta beste euskarrietako liburuen artean. Materiala modurik erosoenean eskuratu ahal izateko premiak, eta eserlekuen kopurua ugaltzeko beharrak, espazioa zabaldu beharra eragin dute, Portalea aldatu eta handik hamar urtera.

Ordutegi zabala, astean zazpi egunetan zabalik egotea eta zerbitzuaren kalitatea direla medio, erritmo ikusgarriaz hazi da liburuen maileguaren zenbatekoa: duela bost urte baino 26.163 liburu gehiago. Datu hauen arabera, 2005ean zehar eibartar bakoitzak 1,53 liburu hartu zituen maileguan.

Kanpainak eta hurrei arreta eskaintzeko ahaleginak arrakasta erabatekoa izan du, urteko estatistiketan oso argi azaltzen dena. *Megairakurleak* edizio bakoitzean parte hartzen duten 100 lagunentzat izan ezik, neguko aste-bukaeretan, familia osoarentzako aisialdi-alternatiba bat bihurtu da zerbitzu hau. Ipuin-kontalariak, lantegiak... eta bideo, disko, liburuen doako eskaintza, oso alternatiba egokia da, saltoki handiek eskaintzen

dutenaren aurrez aurre.

Helduei dagokionez, aurten bertan jarri da abian literatura-tertuliako talde bat, arrakasta handiz, bai parte hartu duten lagunen kopuruarengatik, bai tertuliek izan duten ebaluazioarengatik. Hemerrotekak ere baditu bere irakurle leialak, eta gero eta gehiago dira bestelako formatuen mailegua ezagutzen eta baliatzen duten erabiltzaileak.

Bere eginkizun nagusiaz gainera —irakurketaren zabalkundea— Portaleako liburutegiak oso eginkizun garrantzitsua betetzen du ikasketa-areto gisa. Gutxi dira astelehenetik igandera zabalik dauden liburutegiak eta horren ordutegi zabalarekin (10 ordutik gora egunean); horrez gainera, bi urteko esperientziaren ondoren, gauetan ere zabaltzen da, unibertsitateko ikasleentzat, azterketa-garaian, eta usadio hori jadanik sendotu da.

Hemeroteka eta liburutegi elektronikoa asko erabiltzen dute enplegu bila dabiltzan pertsonak, zeinak noizbehinkako bezeroak izaten baitira, gehienbat aste-bukaeretan etortzen direnak. Etorkinek ere ordenagailuen zerbitzua maiz erabili ohi dute, beren sorlekuekin harremanetan egoteko.

Urrian ospatzen den liburuaren azokari dagokionez, hiriburuko ondoen, Euskadiko garrantzitsuen da. Ipuin-kontalaria, *Megairakurle* kanpaina, irakurketa-giden eta orri-bereiztekoen edizioa, edota zenbait lanen aurkezpena —Udalak argitaraturiko lanak edota eibartar egileen obra izaten dira—, irakurketaren sustapenaren programaketa egonkor baten parte dira urte osoan zehar.

4.7.9. Solasaldiak, hitzaldiak, mahai-inguruak...

Udalak antolatzen duen **Martitzenetan Berbetan** programaz gainera, asko dira Portaleako lokalak hitzaldiak antolatzeko erabiltzen dituzten taldeak. Gaiak talde horien zaletasun edo kezka partekatuen ingurukoak izaten dira, eta entzuleen erantzuna gaiaren egunerokotasunaren eta/edo hizlarien famaren arabera izaten da.

Arrate Kultur Elkarteak lokalak eta **zahar etxeak** ere solasaldi eta hitzaldien usadiozko egoitza dira.

4.8. Sorkuntza-lana, ikerketa, produkzioa...

Sorkuntza-ikerketaren laguntza zenbait proiekturen bidez egiten da, gorago aipaturiko kultur zabalkundeko alor bakoitzean. Hala, artistei laguntzea izaten da Udalak antolatzen duen edo berak parte hartzen duen lehiaketa bakoitzaren helburu nagusia.

Modu berean, liburutegiko fondoak edo liburutegien artean maileguak egiteko aukera ikerlarien zerbitzura dagoen baliabide bat da. Portaleako lantegiak, Legarreko zentroak edota Ondamendiko proiektuak ere artistentzako laborategi edo/inkubagailu izan nahi dute. Une horretan, bada zulo bat ere helduen antzokian, Coliseoa zabaltzen denean bete behar litzatekeena.

Erakusketa-aretoetako egitarauak, kontzertuek edo hitzaldiek, beren lana jendaurrean ezagutarazteko aukera eman nahi diete Eibarko eta inguruko hiritarrei. Baina bada haustura bat sortzaileen eta hartzaileen artean, eta horri buruz hausnarketa egin behar lukete erakundeek, eragileek eta erabiltzaileek, denak elkarrekin.

Horrez gainera, Udalak finantzatu eta UEUrekin lankidetzan sortutako Juan San Martín beka dago, aurreneko Arartekoa izan zenari interesatu zitzaizkion alorretako hainbat ikerketa-lan egiteko erabili da azken bost urteotan zehar.

Artista Gazteentzako diru-laguntzak ez zuen izan espero zen erantzuna, eta Kulturako batzordeak deialdiaren oinarriak berriz ez argitaratzea erabaki zuen.

Lehiaketa hau hornitzen zuten 18.000 euroek argi uzten dute zenbateraino inplikatu den Udala artista gazteei laguntzen. Izan ere, Udala gogoz saiatzen da, bai banakako, bai taldekako sortzaileen proiektuak abian jartzen laguntzen; jarrera horrek badu bere ordaina, hain zuzen ere, badirelako artista famatuak hiriarekin elkarlanean jarduteko gogoia dutenak, eta beren eibartasuna gure hirietako mugez harantzago daramatenak.

Bai baitira Eibarren, izan, munduko gainerako lekuetara eraman daitezkeen kolektiboak, artistak, ikuskariak... Baldin elkarlanean jarduten badugu norabide horretan, ahalegin hori akuilagarria izan daiteke kolektiboentzat eta gazteentzat, eta Eibarko hiria, industria-eta zerbitzu-hiri gisa ez ezik, kultur hira gisa ere sustatuko du XXI. mendean.

4.9. Ezin ukituzko ondarea: jaiak eta tradizioak

Udal baten kultur bizitzan, hornidura edo aurrekontua bezain garrantzitsuak dira ezin ukituzko ondareak. Jaiak eta tradizioak funtsezko partea dira edozein hiritako izaeran; topagunea dira eta atxikimenduzko sena sendotzen dute, eta aldi berean kolektiboan lanaren erakusleioa eta kultur ekimenak antolatzeke esparrua gertatzen dira.

Kaleek, jaiek... elementu bateragarriak behar dute izan, eibartasunaren funtsa ezagutarazteko aukera emango dutenak, hainbat adierazpenetan, hala adibidez dultzaina-joleen harrera edo santutegiko bisitaldia Arrateko Andre Mariaren egunean. Baina, aldi berean, aukera egokiak dira auzotar berrien artean atxikimenduzko sena sustatzeko, baldin ikuskarien eta ekitaldien programaketan haien kultura ere hartzen bada.

Gauza da ekitaldi tradizionaletako parte-hartzea ondo segurtatua dagoela (San Andres azoka, bakailao-lehiaketa, danborrada, soka-dantza...), baina erakundeek babesetik kanpo ospatzen direnak (Ixu eguna, Gaztainerre, San Blasak...) indarra galtzen ari dira, eta jarraitzaile gutxi dute gazteenen artean. Halakoak berreskuratzea betebeharrak bat da gizarteke estamentu guztientzat.

Bestalde, Inauteria bezalako jaiak, gure inguru guztian gertatzen den bezala, ez dira erakargarriak gertatzen, ez bertakoentzat, ez kanpokoentzat. Kasu batean eta bestean, oinak lurrean ipinita, berriz planteatu beharko dira haien zentzua eta helburuak.

Ekitaldien kontzentrazioa da jaien inguruan aztertu beharreko beste gai bat. Maiatza, ekaina, azaroa... kolektiboek beren lana ezagutarazteko aukeratzen dituzten uneak dira, eta jaien egitarauari beren jarduerak eransten dizkiote. Denboraldi horiek modu

koordinatuan planifikatzeko, denok egin beharko dugu lankidetzaren eta eskuzabaltasuneko ahalegin bat.

5.- Eibarko kultur ekintzaren DAFOa

5.1. Ahultasunak

1. Ordezkapen-falta elkarrekin.
2. Kultur programaketa interes sortzeko eragozpenak.
3. Hobekuntzako estrategien, politiken eta ekintzen definizio argi eta bateratu baten falta.
4. Kultur eskaintza desorekatua. Gertaera gehiegi hilabete batzuetan (azaroan, martxoan, maiatzan eta ekainean) eta urritasuna beste garaietan (Aste Santua, zubiak...)

5.2. Mehatxuak

1. Mundu garatu guztian ordainketaren kultura bat zabaldu izana: kultura indibidualizatua, pribatiboa, eta ez gizarteratzailea.
2. Kultur programaketaren inertzia. Autokritikarik eza ebaluazioetan, eta eragilearen erreakzio-falta eskasa.
3. Plurimilitantismoa: elkarrekin oso ugariak badira ere, pertsona asko dira batean baino gehiagotan aktiboki lan egiten dutenak, eta, horren ondorioz, elkarrekin errealitateak egiaz dena baino handiagoa ematen du.
4. Talde gehiegiren kontzentrazioa zenbait eremu jakinetan, elkarrekin koordinazio eskasarekin. Horrek bikoiztasuna dakar, ekitaldi batek beste bat ezkutatzea... (auzoko jaiak...).
5. Zabalkundean inbertituriko baliabideen eraginkortasun maila oso baxua da, baina alor honetako ekimenak oso neketsuak izaten dira.
6. Badira gizarterako sektore batzuk kultur dinamikan oso-oso gutxi edo batera parte hartzen ez dutenak: etorkinak, gaztediaren parte bat...

5.3. Indarguneak

1. Kultur programaketa ugaria eta egonkorra.
2. Giza-ahalmen handia: lan egiteko gogoia duten kolektibo asko.
3. Ahalegin ekonomiko handia Udalaren aldetik, kulturari eskaintako aurrekontuetan.
4. Hiriko kultur zerbitzu gehien-gehienak Portalean zentralizatuak egotea; horrek gizarterako-koherentsia erraztuko du eta hobeto baliatuko dira eskura dauden baliabideak.
5. Ikastetxeetako hezkuntza-programetan txertatuak dauden hartzaileen sorkuntza-jarduerak (eskola-antzerkiko erakustaldia, erakusketa didaktikoak, liburutegiko bisitaldiak, zinema euskaraz, txotxongilo-jaialdia,...).

5.4. Aukerak

1. Epe laburrean zabaltzekoa da Coliseoa.
2. Badira hirian bi irrati-emisora, zenbait orri argitaraldi handieneko bi egunkarietan, bi aldizkari lokal, emisora pirata bat... zabalkunde-lanetan erabil daitezkeenak.
3. Eibar Merkataritza Gune Irekia abian jartzeak eskualdeko hiriburu gisa dugun irudia sendotuko du, eta erakarpen-indar handia izango du beste eremuetako kontsumitzaileentzat. Hala, gure hartzaile-masa handitu egingo da.
4. Hiriaren neurriak eta kultur agenteen jarrerak, elkarlanean aritzearen aldera, sorkuntza eta antolamenduzko "zeharkako" ekimenak bideratzen lagundu du: musika eta dantza, musika eta antzokia, Euskal Jaiaren programaketa...
5. Egin dira dagoeneko lehen urratsak San Joanetako jaietan kuadrillen mugimendua berreskuratzeko. Antolamendu horrek berak ekimen berriak garatuko lituzke urtean zehar.

6.- MISIOA

Hiritarren bizitza-kalitatea hobetzea, nortasuna, atxikimendua, parte-hartzea eta Eibarrekiko konpromisoa sustatuko dituen kultur ekintza bat gidatuz. Horretarako, kultur zabalkundeko, ondarea berreskuratzeko, hizkuntz normalizazioko, kultur ekoizpeneko, parte-hartze sozialeko eta kulturaleko ekintzak garatuko dira, bertako elkarrekin eta kolektiboekin elkarlanean.

7.- IKUSPEGIA

Hiritarrak Eibarko kultur dinamikarekin konprometitu, parte-hartzean, programaketa ugari eta kalitatezko batean eta eskualde osoan erreferentziazkoak izan daitezkeen hornikuntzetan oinarriturik.

8.- BALIOAK

Hauek dira Eibarko kultur bizitzan inplikaturiko erakundeek lan egiterakoan aintzat hartu behar ditugun balioak:

Ekonomia

Finantza-, giza-baliabideak eta baliabide materialak ahalik eta baldintzarik hoberenetan eros daitezen arduratuko gara: denbora egokian eta ahalik eta kostu apalenarekin, behar den kopuruan eta alde zuzenetik finkaturiko kalitatearekin.

Eraginkortasuna

Gure programetan finkaturiko helburuak betetzeari dagokionez, apurka-apurka gero eta gorago egingo dugu, lortutako emaitzak aurrez ikusitakoekin konparatuz, nahi bezala lortzen diren arte (zer bitarteko erabili den alde batera utzita).

Eragingarritasuna

Gure baliabideak ahalik eta modurik hoberenean erabiltzeko jardungo dugu lanean, ahalik eta kalitatezko zerbitzu gehienak lortzeko, ahalik eta biztanle-ehuneko gehienentzat izan daitezen.

Ekitatea

Eibartar guztiek baliabideetan sarbide-aukera berdina izan dezaten bermatzen saiatuko gara. Zerbitzuen banaketa zuzenaren mailaren gaineko kontrola izango da gure lehentasunetako bat.

Bikaintasuna

Hiritarrek (bezeroek) emandako zerbitzuei buruz duten pertzeptzioa zainduko dugu.

Ingurua eta bilakaera iraunkorra

Zerbitzuen eta programen funtzionamenduak sorrarazitako onurak denboran luzatzen eta gal ez daitezen saiatuko gara.

Nortasuna-atxikimendua

Gure nortasunaren eta Eibarrekiko atxikimendua sustatuko dugu, eibartasuna, hiritar konprometituak eta Eibarko kultur, gizarte- eta ekonomia-garapenean parte hartzen dutenak sortuz.

9.- ILDO ESTRATEGIKOAK

1. Hiria kalitatezko kultur eskaintza batez hornitu.
2. Programa, hornikuntza eta zerbitzuetan erabiltzaileen kopurua eta aniztasuna handitu.
3. Asoziazionismoa sendotu, belaunaldi gazteak asoziazionismora bultzatu.
4. Kudeaketaren hobekuntza etengabea segurtatu.

9.1. 1 ildo estrategikoa:

HIRIA KALITATEZKO KULTUR ESKAINTZA BATEZ HORNITU

Helburuak:

- A- Hornikuntzak inauguratu eta sendotu.
- B- Programaketa ebaluatu eta urtero parte bat berriztatu.

C- Udal-ordezkariez gainera, kultur adituek eta eragileek parte hartzen duten batzorde aholku-emaila bat antolatu.

D- Programaketa hirian bertan eta hiriaren eraginpeko inguruan (Ermuan, Elgetan, Elgoibarren...) diharduten gainerako eragileekin koordinatu.

9.2. 2 ildo estrategikoa

PROGRAMA, HORNIKUNTZA ETA ZERBITZUETAN ERABILTZAILEEN KOPURUA ETA ANIZTASUNA HANDITZEA

Helburuak:

A- Kultur eskaintza ezagutarazi, zabalkunde-kanpaina orokorrak eta proiektu bakoitzarentzako kanpaina bereziak eginez.

B- Gaur egun presentzia eskasa duten gizataldeak eta bereziki gazteak aintzat harturik eskaintza programatzea eta ezagutaraztea.

C- Hornikuntzak, zerbitzuak eta programak balioztatzea. Haien erabilerari eta kontsumoari ospea ematea.

D- Gogoan izan zeini zuzentzen zaion eskaintza bereziki, ahaleginak zabalkundean zentratzeko.

9.3. 3 ildo estrategikoa

ASOZIAZIONISMOA SENDOTU

Helburuak:

A - Elkarteei Administrazioarekiko harremanak erraztu.

B- Hausnarketa egin, eta kolektiboetan epe labur, ertain eta luzeko helburuak finkatzea bultzatu.

C- Kolektiboekiko komunikazio-bide formalak ezarri, eta haien xedeak lortzeko elkarlanean jardun.

D- Boluntarioen lanari ospea eman, betetzen duten eginkizuna hiria ezagutaraziz eta gazteen artean lan horren erakargarritasuna azpimarratuz.

9.4. 4 ildo estrategikoa

KUDEAKETAREN HOBETUNTZA ETENGABEA

Helburuak:

A- Sailaren kalitate-eskuliburua eguneratu eta formalizatu.

B- Prozedura bakoitzarentzat eta sistemarentzat oro har ezarritako minimoak bete eta betearazi.

- C- Arau nagusitzat gastuaren eraginkortasuna ezarri.
- D- Sistema guztiaren oinarri nagusi gisa, autokritika erabili.